QUINCAILLERIE - DROGUERIE
A. HARISPE
GUÉTHARY (B.-P.)

# Kostatarrari Agur

Hogoita bortzaren Buruileko gure astekari "Herrian" lerro alde batzu ezarri ditu Kostatarrak.

Jakin dezala osoki arekin nahizela, loria handian, ezen uste bainuken bakarrik nitzela.

"Les trois B" eta "Region economique du Sud-Ouest" agertu zirelarik, ikastun estalia igorri nakon gure eguntkari bati, agostoaren amahiruan, mila bederatzi ehun ta berrogoi-ta zortzian.

Horra zer erraten nakon :

« Azko ikus-molde jaun PL ren dako »

Bizkitartean arrats guziz aski nahio ohean sartzea, loak artzeko bere besotan, goizeko seihak arte.

Gaur, agostoaren amabian, mila bederatzi ehun eta berogoita emezortzian, loak ez du ethorri nahi. Kanpoan, pilota plazan, "Oldarren" irrintzinek erraten nauthé: Eskualduna haiz!

Baietz, goizetik ene burua zaintzua edo chifritua, atzoko irakurpenak gaizki utzi nau!

Lerro-aldearen titulua nitas jabetu dena emaiten dautzutet :

« Voici l'heure des 3 B »

Neretako eta hainitz Eskualdunen dako, probintzia zaharretarat itzultzea ~~eta~~ litake hoberena.

Hamalaueko gerlan igorri nintuzten, Eskualdun

lagun batzuekin, "Saint Looäte hun eta hogoi-ta-hamasei ekorat.
Han aditu nuhen Fransia egina dela Betroinias, normandias Alsasias ....... eta de Gaulek nahi badu zerbait galdatu! Frambezeri, gogoaren zolan sartu gauza hau « galda Eskualde Saharren izenean »!

Bizkitartean jaun PL ek antolatzen ditu gauzak bere moldean; aithortzen dut ez dakitela Eskualdun, Biarnes edo Bigurdana den ....... Ez da Eskualduna, ezen Eskualdun batek badaki, aitaren eta amaren ganik, Eskual-Herria egina dela zazpi Eskualdes (hiru Fransian, lau Espainian.)

Es uste izan ez dituztela Biarnesak eta Bigurdanak maite ..... bainan gehiago maita nezaskte laguntzen bagintuzte (armaik gabe) muga madarikatu hori suntsiarastea.

Galdatzen dut beras jaun PL eri azkarki ari dadin lanean ethordadin azkenean (lau L en) tenorea (latinena) ..... zeren harek bakharrik eginen baitu Europa indartzu bat.

Guk Eskualdunek itcharoa ez dugu galtzen zeren orai dela mila bederatzi ehun eta berrogoi ta zazpi urte, Kristo ethorri lurraren gainerat guri erraiteko "maita zaizte"

Pentzatzen duzu, berritz ethortzen balitz mundu huntarat hobeki aditua litakela?

Dudarik gabe, bi errege atrebitu dire Eskualdunak berechtea;

Enperadore handi eta azkar batek ez du gauza hori antolatu;

Eta zu, bortzgarren Errepublika! zer eginen duzu? Egin batez handitzen bazarde?

Harispe, A.

Sinetz nauzu! muga hori latza da Eskualdunentzat; zonbait gizonen bihotza bezin latza »

1958 agostoaren 13°

---

Horra beraz Kostatar maitea nere lana.

Gure deputatuek indezatela behar dena ez badire moroak bainan gutiago! Uste ukan dezagun oraikoek inen dutela zerbait; eta ez dezatela erran lehenagoko batek erran zuen bezala Eskualdun ikestoki zonbaiteri:

« zuen eskualdea maite duzue, nik nerea maite dutēn bezala - Eskualdunak zaiztela erraten duzue, bainan Españolak zaizte ororen gainetik.

Erresuma handi bat egiten duzue, iragan denbora ederrenetagorik duena -

Nik, maite balinbadut erraitea Eskualduna nahizela, guziz gainetik urgoi nahiz erraitea Frantses nahizela »

Kostatarrari ezagutarazi daskot berri batzu ...... eta orai agur erranez bertze bat artio -

Urrundu gabe, biak irrintzina luze batean:

Altcha Europa!

Gora Euskadi!

Getariako Hartchatzaleak berriz agur

Getariarra

[signature]